



2020SPLE0006  
6.Bilera: OHIKOA 2020/05/28

**UDALEKO PLENOA. BILERA-AKTA**  
ACTA del PLENO MUNICIPAL

BILERA ZK.: 6  
EGUNA: 2020/05/28  
ORDUA: 19:03  
TOKIA: Pleno aretoa.

Nº: 6  
DÍA: 28/05/2020  
HORA: 19:03  
LUGAR: Salón de plenos.

**BERTARATUAK:**

Gilen Garcia Boyra, alkatea

EH Bildu udal taldea  
Itziar Irizar  
Antxon Etxeberria  
Nerea Arrizabalaga  
Aritz Larrañaga  
Antxoka Elorza

Debarren Ahotsa udal taldea  
Pedro Bengoetxea  
Ane Miren Egidazu  
Enrique Salgado  
Isidor Lamariano

EAJ-PNV udal taldea  
Iñigo Cambronero  
Eneritz Gómez  
Miren Esnal

Idazkaria: Jorge González Endemaño

**ASISTENTES:**

Gilen Garcia Boyra, alcalde

Grupo municipal EH Bildu  
Itziar Irizar  
Antxon Etxeberria  
Nerea Arrizabalaga  
Aritz Larrañaga  
Antxoka Elorza

Grupo municipal Debarren Ahotsa  
Pedro Bengoetxea  
Ane Miren Egidazu  
Enrique Salgado  
Isidor Lamariano

Grupo municipal EAJ-PNV  
Iñigo Cambronero  
Eneritz Gómez  
Miren Esnal

Secretario: Jorge González Endemaño



2020SPLE0006  
6.Bilera: OHIKOA 2020/05/28

**1. ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, OSOKO BILKURA HAU ATEAK ITXITA EGITEA, COVID-19 KUTSAZTEKO EDO HEDATZEKO PREBENTZIO NEURRI GISA.**

Osoko bilkura atearak itxita eta maskarekin egitea proposatzen du alkateak.

Bozkatu ondoren, aho batez onartzen da Osoko Bilkura atearak itxita eta maskarekin egitea.

**2. AURREKO BILKUREI DAGOZKIEN AKTEN ZIRIBORROA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

Bozkatu ondoren, aho batez onartu da aurreko bilkurako akta.

**3. ALKATETZA DEKRETUAK.**

Bertaratuak jakinaren gainean geratu dira ondorengoak:

**1. APROBAR, SI PROCEDE, CELEBRAR ESTA SESIÓN DE PLENO A PUERTA CERRADA, COMO MEDIDA DE PREVENCIÓN DEL CONTAGIO O PROPAGACIÓN DEL COVID-19.**

El alcalde propone celebrar el Pleno a puerta cerrada y con mascarilla.

Tras someterse a votación se aprueba por unanimidad celebrar el Pleno a puerta cerrada y con mascarilla.

**2. APROBACIÓN, SI PROCEDE, DEL BORRADOR DE LAS ACTAS DE LAS SESIONES ANTERIORES.**

Tras someterse a votación se aprueba por unanimidad el acta de la sesión anterior.

**3. DECRETOS DE ALCALDÍA.**

Los asistentes quedan informados de las siguientes resoluciones:

127	2020/04/29	G.S. udaltzainaren kontratuaren luzapena.	2020SCTP0003
128	2020/04/30	Kuttuna bonoak.	2020SCCO0005
129	2020/05/08	Hondartza 16. Estalkia eta fatxada birgaitzeko obra baimena.	2019UROM0017
130	2020/05/08	Buru Zuri tabernari terraza jartzeko baimena ematea.	2020PMVE0001
131	2020/05/08	Ogi Berri okindegiari terraza jartzeko baimena ematea.	2020PMVE0002
132	2020/05/08	Hondartzako pasealekuko izozkien etxolen kontratuak esleitzeko prozesua atzera botatzea.	2020SCOU0002



DEBAKO UDALA

2020SPLE0006

6.Bilera: OHIKOA 2020/05/28

133	2020/05/08	Hondartzako pasealekuko izozkien etxolen kontratuaren ezohiko luzapena 2020ko uda denboraldirako-2.etxola.	2014SCOU0001
134	2020/05/08	Hondartzako pasealekuko izozkien etxolen kontratuaren ezohiko luzapena 2020ko uda denboraldirako-3.etxola.	2014SCOU0001
135	2020/05/08	Hondartzako pasealekuko izozkien etxolen kontratuaren ezohiko luzapena 2020ko uda denboraldirako-4.etxola.	2014SCOU0001
136	2020/05/08	Udaleku irekiak 2020 administrazio kontratazioko espedientea atzera botatzea 2020ko uda denboraldirako.	2020SCOU0010
137	2020/05/11	Sorosleen kontratuaren ezohiko luzapena 2020ko uda denboraldirako.	2019SCOU0030
138	2020/05/12	AD13/2020, AD61/2020 eta AD75/2020 baliogabetzea (Doniene Txiki).	2019UOME0125
139	2020/05/12	Doniene Txiki: Obra txikia- baimena ematea.	2019UOME0125
140	2020/05/12	Debakosta Promociones S.L.ri Lersundi kalea 4. zenbakian "Oinarrizko Proiektu aldatua: 17 etxebizitza, merkataritza-baxua eta garajeak. U.E. E-1. Lersundi 4. Deban", Ansola Bastida Arkitektoak SLk eginari hirigintzako obra-lizentzia ematea.	2019UROM0006
141	2020/05/13	Obra txikia. Itur kalea 9ko eraikinean usoen aurkako sistema jartzeko baimena ematea.	2020UOME0015
142	2020/05/13	Obra txikia. Mutxiarte 7 eraikineko teilatua eraberritzeko baimena ematea.	2020UOME0023
143	2020/05/13	Obra txikia. Mogel kalea 1 eraikineko balkoien barandak aldatzeko baimena ematea.	2020UOME0034
144	2020/05/13	Obra txikia. SOKAGIN eraikineko fatxada margotu eta begiratokiak lixatu eta bernizatzekeo baimena ematea.	2020UOME0037
145	2020/05/13	Tokiko Administrazioako gaitasun nazionaleko funtzionarioentzat gordetako lanpostu hutsak betetzeko 2020ko lehiaketan parte hartzea.	



2020SPLE0006

6.Bilera: OHIKOA 2020/05/28

146	2020/05/13	Obra txikia. San Josepe kalea 3, 1A etxebizitzako leihoak aldatzeko baimena ematea.	2020UOME0040
147	2020/05/14	Udako TAO makinak-Gertek enpresari esleitzea	2020SCOU0015
148	2020/05/14	AD124 zuzenketa-Berdintasun teknikariaren kontratua	2020SCOU0013
149	2020/05/15	Quivacolorri jarduera baimena ematea	2018URLA0004
150	2020/05/18	Zurrunbilo eta Debakayak lokalak irekitzea	
151	2020/05/19	Lersundi 21: Andamioa jartzea	2019UROM0025
152	2020/05/19	MCri Animalia arriskutsua edukitzeko lizentzia ematea	
153	2020/05/21	Gizarte larrialdietarako laguntzak onartzea eta ordaintzea.	

Pedro Bengoetxeak zenbait punturen azalpenak eskatzen ditu:

- 136 ebazpenak zer esan nahi duen galdetzen du. Idazkariak erantzuten dio, larrialdi egoeratik atzera bota behar izan zirela 2020ko udaleku irekiak, alde batetik osasun kontuagatik eta beste aldetik administrazio kontraturik egiterik ez zegoelako larrialdi egoeran. Aritz Larrañagak, gehitzen du aurrekontuak egokitzerakoan ere, partida hori bertan behera gelditu zela.
- 137 ebazpena argitzea eskatzen du. Alkateak erantzuten du, Gipuzkoako hondartzen mahaian hitz egindakoaren arabera, udal guztiak aldi berean martxan jartzea adostu zen. Ekainaren 15etik aurrera martxan jartzea.

Pedro Bengoetxea solicita aclaraciones sobre algunos puntos:

- Pregunta el significado de la Resolución 136. El secretario responde que, debido a la situación de emergencia, se tuvieron que anular las colonias de verano de 2020. Por una parte, debido a la cuestión sanitaria y por otra porque durante la situación de emergencia no se pueden celebrar contratos administrativos. Aritz Larrañaga añade que al adaptar los presupuestos, esa partida, quedo anulada.
- Solicita aclarar la Resolución 137. El alcalde responde que visto lo que se habló en la mesa de la playas de Gipuzkoa, todos los ayuntamientos acordaron empezar la temporada al mismo tiempo. A partir del 15 de junio.



2020SPLE0006

6.Bilera: OHIKOA 2020/05/28

Idazkariak, kontratua egiteko denbora epea ere pasa egin zela eta beste plegu batzuk urgentziaz atera behar izan direla argitzen du. Teknikoki egin den kontratu luzapena beste aukerarik ez zegoen.

- 140 ebazpena argitzea eskatzen du. Idazkariak dio Hirigintza Batzordean onartutakoa dela. Obra baimena da eta honekin baimen guztiak dituzte.
- 145 ebazpenari buruzko informazioa eskatzen du. Alkateak adierazten du, zenbait lanpostu gaikuntza nazionalekoak direla legez eta beraz aldiro egin beharrekoa dela. Idazkariak urtero egin behar dela dio.
- 148 ebazpenari buruzko informazioa eskatzen du. Idazkariak urtero berritzen den kontratua dela dio. Alkateak dio, hitz egin zen baliabideen optimizazioaren harira, kontratu hori ere aztertu egingo dela.

Enrique Salgadok dekretuen zerrendan zer batzorderi dagokion jartzea posible den galdetzen du. Alkateak jarri ahal dela dio.

#### **4. EELZaren DIRU PARTAIDETZAREN TASA BERRIARI ONIRITZIA EMATEA, HALA BADAGOKIO.**

Aritz Larrañagak dio, tasa berrien inguruan Aldunditik iritsi den egokitzapen bat egiteko beharra dela.

El secretario añade que también se pasó el plazo para realizar el contrato y que se tuvieron que realizar otros pliegos con carácter urgente. Técnicamente, no había más opción que realizar la prórroga del contrato que se ha realizado.

- Solicita aclarar la Resolución 140. El secretario dice que es lo que se aprobó en la Comisión de Urbanismo. Es un permiso de obra y con este tienen todos los permisos.
- Solicita información sobre la Resolución 145. El alcalde aclara que algunos puestos tienen que ser legalmente de habilitación nacional y por lo tanto es necesario publicarlos cada cierto tiempo. El secretario dice que hay que publicarlos anualmente.
- Solicita información sobre la Resolución 148. El secretario dice que es un contrato que se renueva cada año. El alcalde menciona que ese contrato también se revisará en el marco de la optimización de recursos.

Enrique Salgado pregunta si es posible que en la lista de Decretos se especifique a qué comisión corresponde cada uno. El alcalde dice que puede ponerse.

#### **4. APROBAR, SI PROCEDE, LA NUEVA TASA DE PARTICIPACIÓN MONETARIA EN LAS AES.**

Aritz Larrañaga señala que es una necesidad sobre la realización de la adaptación de tasas llegada desde Diputación.



2020SPLE0006

6.Bilera: OHIKOA 2020/05/28

Onartzen bada, tasa berria aplikatuko da.

Bozkatu ondoren, Osoko Bilkurak ahobatez onartzen du EELZren partaidetzaren tasa berriari oniritzia ematea.

**5. GARAPENAREN ALDEKO NAZIOARTEKO DIRULAGUNTZAK NORGEHIAGOKA PROZEDURA BIDEZ ESLEITZEKO 2020KO DEIALDIA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

Aritz Larrañagak gaia azaltzen du. Aurten zinegotzien asignazioarekin larrialdietarako poltsa bat sortzen da. Emergentsia laguntza berdin mantentzen da. Dirulaguntzen epea ere aldatu egin da, izan ere zenbait eskaera epez kanpo geratzen ziren.

Osoko Bilkurak bozkatu ondoren, ahobatez onartzen da deialdia onartzea.

**6. COVID-19AREN PANDEMIAK ERAGINDAKO ALARMA EGOERAK IRAUTEN DUEN BITARTEAN BIZITEGI-BAZTERKETA EGOERAN DAUDEN PERTSONAK ARTATZEKO EIBARKO, ELGOIBARKO, MUTRIKUKO, MENDAROKO, SORALUZKO ETA DEBAKO UDALEN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

Aritz Larrañagak hitzarmenaren edukia azaltzen du.

Si se aprueba, se aplicará la nueva tasa.

Tras la votación, el pleno acuerda, por unanimidad, aprobar la nueva tasa de participación en las AES.

**5. APROBAR, SI PROCEDE, LA CONVOCATORIA PARA EL AÑO 2020 DE LAS SUBVENCIONES DE COOPERACIÓN AL DESARROLLO, MEDIANTE EL PROCEDIMIENTO DE CONCURRENCIA COMPETITIVA.**

Aritz Larrañaga explica el tema. Este año con las asignaciones de los concejales se crea una bolsa de emergencia. La ayuda de emergencia se mantiene igual. También se ha modificado el plazo de las subvenciones, ya que algunas solicitudes quedaban fuera de plazo.

Sometida a votación del Pleno, se aprueba por unanimidad la convocatoria.

**6. APROBAR, SI PROCEDE, EL CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE LOS AYUNTAMIENTOS DE EIBAR, ELGOIBAR, MUTRIKU, MENDARO, SORALUZE Y DEBA, PARA EL USO DEL REFUGIO DE PEREGRINOS DE DEBA, EN LA ATENCIÓN DE PERSONAS EN SITUACIÓN DE EXCLUSIÓN RESIDENCIAL DURANTE EL ESTADO DE ALARMA Y CRISIS SANITARIA PROVOCADA POR LA PANDEMIA DE COVID-19.**

Aritz Larrañaga explica el contenido del convenio.



DEBAKO UDALA

2020SPLE0006

6.Bilera: OHIKOA 2020/05/28

Osoko Bilkurak bozkatu ondoren, aho batez onartzen da hitzarmena.

Sometido a votación del Pleno, se aprueba por unanimidad el convenio.

**7. DEBAKO UDALAREN ETA HUHEZI KOOP.E.-REN ARTEKO ELKARLANEKO-HITZARMENA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

**7. APROBAR, SI PROCEDE, EL CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE EL AYUNTAMIENTO Y HUHEZI KOOP.E.**

Aritz Larrañagak hitzarmenaren edukia azaltzen du.

Aritz Larrañaga explica el contenido del convenio.

Osoko Bilkurak bozkatu ondoren, aho batez onartzen da hitzarmena.

Sometido a votación del Pleno, se aprueba por unanimidad el convenio.

**8. 2020 URTEKO TENE MUJIKA BEKAREN OINARRI ETA AURREKONTUA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

**8. APROBAR, SI PROCEDE, LAS BASES Y EL PRESUPUESTO DE LA BECA TENE MUJIKA 2020.**

Aritz Larrañagak gaia azaltzen du.

Aritz Larrañaga explica el tema.

Osoko Bilkurak bozkatu ondoren, aho batez onartzen dira oinarriak eta aurrekontua.

Sometidas a votación por el Pleno, se aprueban por unanimidad las bases y el presupuesto.

**9. 2021KO ABUZTUAREN 16a, SAN ROKE, TOKIAN-TOKIKO JAI EGUNA IZATEA ADOSTEA, HALA BADAGOKIO.**

**9. APROBAR, SI PROCEDE, DECLARAR EL 16 DE AGOSTO DE 2021, SAN ROKE, DÍA FESTIVO LOCAL.**

Osoko Bilkurak bozkatu ondoren, aho batez onartzen da.

Sometido a votación por el Pleno, se aprueba por unanimidad.

**10. UDAL FONDO FORALARI BURUZKO MOZIOA.**

**10. MOCIÓN SOBRE EL FONDO FORAL DE FINANCIACIÓN MUNICIPAL.**

Alkateak eguneko gaian UFFF mozioaren bozketa sartzea proposatzen du.

El alcalde propone incluir en el orden del día la votación de la moción FFFM.





2020SPLE0006

6.Bilera: OHIKOA 2020/05/28

Bozkatu ondoren, Osoko Bilkurak aho batez onartzen du mozioa eguneko gai zerrendan sartzea.

Tras la votación, el Pleno aprueba por unanimidad incluir la moción en el orden del día.

Alkateak mozio proposamena aurkezten du:

El alcalde presenta la propuesta de la moción:

Itziar Irizarrek mozioa irakurtzen du:

Itziar Irizar lee la moción:

"-UFFF MOZIOA-

"-MOCIÓN FFFM-

*Maiatzaren 14an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen Aldundiak udalei egiten dien diru-banaketan % 20ko murrizketa aplikatzeko Diputatu Kontseiluaren aldebakarreko erabakia. Horrelako erabakiei buruz hitz egiteko toki beharko zukeen Gipuzkoako Finantzen Kontseilua hurrengo egunean bildu zen eta dagoeneko hartuta zegoen erabakiaren berri emateko izan zen.*

*El pasado 14 de mayo se publicó en el Boletín Oficial de Gipuzkoa el acuerdo unilateral adoptado por el Consejo de Diputados/as por el que se aplicaba una reducción del 20% en el reparto de fondos que realiza la Diputación a los ayuntamientos. El siguiente día se reunió el Consejo Territorial de Finanzas de Gipuzkoa, espacio que debería servir para hablar de este tipo de decisiones, y fue para dar a conocer la decisión ya adoptada.*

*Udalak, herritarren beharretatik gertuen dauden erakundeak izateaz gain, lehen mailako erakundeak dira, Udal Legeak aitortzen duen bezala. Zentzu honetan, euskal erakundeen arteko diru-banaketan aldaketarik egon behar bada, erakunde guztien artean eztabaidatua eta adostua izan behar luke, aldeek informazioa modu gardenean partekatu ondoren eta inola ere ez aldebakarrez.*

*Los ayuntamientos, además de ser las entidades más cercanas a las necesidades de la ciudadanía, son entidades de primer orden, como reconoce la Ley Municipal. En este sentido, cualquier cambio en la distribución financiera entre las instituciones vascas debería ser debatido y consensuado entre todas ellas, una vez que las partes hayan compartido la información de forma transparente. En ningún caso debe producirse de manera unilateral.*

*Zerbitzu publikoak garatzeko ezinbestekoa den finantzazioaz ari gara hizketan, udalen eguneroko kudeaketan eta herritarren bizitzan eragin zuzena duten erabaki politikoez. Horregatik, honako eskariak egiten*

*Hablamos de la financiación imprescindible para el desarrollo de los servicios públicos, de las decisiones políticas que afectan directamente a la gestión diaria de los ayuntamientos y a la vida de la ciudadanía. Por ello, el Ayuntamiento de Deba realiza las*





2020SPLE0006

6.Bilera: OHIKOA 2020/05/28

*dizkio Debako Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari:*

- 1. UFFFri buruzko elkarrizketaren aldeko apustu irmoa egitea.*
- 2. Berraztertu dezala aldebakarrez hartutako erabakia eta udalekin elkarlanean adostasun bat bilatu dezala udalen egonkortasun finantzarioa ere helburu izango duena.*
- 3. Elkarlana inoiz baino beharrezkoagoa dela sinetsita gaudenez Udalekin ko-gobernantzarako foro bihur dezala Gipuzkoako Finantzen Kontseilua. Bertan informazioa partekatu dadila, proposamenak aztertu eta adostasunak lortu daitezten, ondoren Gipuzkoako udalen finantzaketari buruzko Foru Arauan beharrezko isla izan dezaten.*

*Debako Udalak erabaki honen berri emango dio Gipuzkoako Aldundiko Diputatu Nagusiari, Ogasun Diputatuari, Gipuzkoako Batzar Nagusietako alderdi guztiei eta EUDELeko Gipuzkoako eta EAEko zuzendaritzei.*

*Deban, 2020ko maiatzaren 28an."*

*Pedro Bengoetxeak dio beraiek onartuko dutela baina baita eskatzen dute udalak beraiekin harreman zuzenagoa izatea.*

*Iñigo Cambronerok esan du beraiek mozioaren aurka bozkatuko dutela Euskadik duen berezitasuna justifikatuz, hau da, diru-bilketa eta murrizketak partekatu behar ditugula Eusko Jaurlaritzaren, Aldundien eta*

*siguientes peticiones a la Diputación Foral de Gipuzkoa:*

- 1. Que apueste decididamente por el diálogo sobre el FFFM.*
- 2. Que reconsidere la decisión unilateral adoptada y que busque en colaboración con los ayuntamientos un acuerdo que persiga también la estabilidad financiera de los ayuntamientos.*
- 3. En la medida que creemos que la colaboración es más necesaria que nunca, que el Consejo de Finanzas de Gipuzkoa se convierta en un foro de co-gobernanza junto con los ayuntamientos. Que se comparta información en él, se analicen las propuestas y se alcancen consensos que luego tengan el reflejo necesario en la Norma Foral de financiación municipal de Gipuzkoa.*

*El Ayuntamiento de Deba comunicará este acuerdo al Diputado General de Gipuzkoa, al Diputado de Hacienda, a todas las formaciones políticas de las Juntas Generales de Gipuzkoa y a las direcciones de Gipuzkoa y de la CAPV de EUDEL.*

*En Deba, a 28 de mayo de 2020."*

*Pedro Bengoetxea dice que ellos aceptarán, pero también piden que el ayuntamiento tenga una relación más directa con ellos.*

*Iñigo Cambronerok dice que ellos votarán en contra de la moción justificando la particularidad que tiene Euskadi que es que tenemos que compartir la recaudación y los recortes entre Gobierno Vasco, Diputaciones y*



2020SPLE0006

6.Bilera: OHIKOA 2020/05/28

udalen artean. Bilketa txikiagoa izango da, eta ehuneko horien arabera egingo dira murrizketak. Igoerak egon direnean irizpide horrekin ere aplikatu dira, eta orain ezin dugu mozio hau babestu.

Alkateak eskerrak ematen dio udalaren aldetik DARI babesagatik, eta parte hartze eta harreman zuzenagoa izatearekin ados dago. Iñigori erantzunez, kalkulua baino gehiago da erabaki horiek hartzerako orduan zein ibilbide jarraitu den, eta lehenengo aldiz, udalak onartuta zegoen diru bat ez jasotzera behartuta daudela dio. Erabakia dekretuz hartu da eta horregatik honako mozioa.

Iñigo Cambronerok dio beraiek konfiantza dutela bidezkoa dela eta mozio hau gai politikoa dela. Mozioa ulertzen dute baina ez dute partekatzen.

Pedro Bengoetxeak dio gai honek ondorio ekonomikoa duela. Ez dute zenbatekoa eztabaidatzen baizik eta Aldundiaren lan egiteko era.

Aritz Larrañagak dio orain arte likidazioa otsailean egiten zela eta orain dekretuz erabaki dute aurten ez digutela diru hori emango. Hori negoziatua izan bazen ulertuko zen baina ez dekretuz eta alde bakarretik. Ulertzen dute diru sarrera gutxiago egongo direla baina ez daude ados dagoeneko kentzen hastearekin eta erabakia alde bakarrez hartzearekin.

Enrique Salgadok dio ez dela sartzen mozioa politikoa den edo ez, gai

Ayuntamientos. La recaudación va a ser menor y según estos porcentajes se harán los recortes. Cuando ha habido subidas se han aplicado también con este criterio y ahora no podemos apoyar esta moción.

El alcalde agradece por parte del ayuntamiento el apoyo a DA y está de acuerdo con tener una participación y relación más directa. En respuesta a Iñigo, más que un cálculo es el recorrido que se ha seguido al tomar estas decisiones y dice, que, por primera vez, el ayuntamiento está obligado a no recibir un dinero que estaba aprobado. El acuerdo se ha adoptado por decreto, y por ello, la presente moción.

Iñigo Cambrero dice que ellos confían en que es justo y que esta moción es un tema político. Entienden la moción, pero no la comparten.

Pedro Bengoetxea dice que este tema tiene una repercusión económica. No discuten la cantidad sino la forma de trabajar de la Diputación.

Aritz Larrañaga dice que hasta ahora la liquidación se hacía en febrero y ahora han decidido que este año no nos van a conceder ese dinero. Se habría entendido si hubiera sido negociado, pero no por decreto, unilateralmente. Entienden que habrá menos ingresos, pero no están de acuerdo con empezar a suprimirlos y tomar la decisión de forma unilateral.

Enrique Salgado dice que no entra en si la moción es política o no, se ciñe al tema económico. Dice que se debería



2020SPLE0006

6.Bilera: OHIKOA 2020/05/28

ekonomikora mugatzen da. Udalen iritzia kontuan hartu beharko zela dio.

tener en cuenta la opinión de los ayuntamientos.

Alkateak dio, udalean aurrekontua taldeekin elkarlanean egin den moduan Aldundian ere egin beharko litzatekeela eta ez dela egin. Iritziak ere ez dituzte kontuan hartu.

El alcalde dice que como se ha hecho el presupuesto en el ayuntamiento en colaboración con los grupos, también se debería hacer en la Diputación, y no se ha hecho. Tampoco han tenido en cuenta las opiniones.

Mozio bozkatu ondoren, Osoko Bilkurak onartu egiten du ondorengo emaitzarekin:

Tras votar la moción, el Pleno la aprueba con el siguiente resultado:

Aldeko bozkak:

Votos a favor:

EH Bildu udal taldea

- Gilen Garcia Boyra, alkatea
- Itziar Irizar
- Antxon Etxeberria
- Nerea Arrizabalaga
- Aritz Larrañaga
- Antxoka Elorza

Grupo municipal EH Bildu:

- Gilen Garcia Boyra, alkatea
- Itziar Irizar
- Antxon Etxeberria
- Nerea Arrizabalaga
- Aritz Larrañaga
- Antxoka Elorza

Debarren Ahotsa udal taldea

- Pedro Bengoetxea
- Enrique Salgado
- Ane Miren Egidazu
- Isidor Lamariano

Grupo municipal Debarren Ahotsa:

- Pedro Bengoetxea
- Enrique Salgado
- Ane Miren Egidazu
- Isidor Lamariano

Aurkako bozkak:

Votos en contra:

EAJ-PNV udal taldea

- Iñigo Cambronero
- Eneritz Gómez
- Miren Esnal

Grupo municipal EAJ-PNV:

- Iñigo Cambronero
- Eneritz Gómez
- Miren Esnal

## 11. ESKARI ETA GALDERAK

## 11.RUEGOS Y PREGUNTAS

Iñigo Cambronero galdetu du nola dagoen Itziarko Toki Erakunde Txikiari buruz Aldundiak egindako errekerimenduaren gaia.

Iñigo Cambronero pregunta como está el tema del requerimiento de la Diputación sobre la Entidad Local Menor de Itziar.



2020SPLE0006

6.Bilera: OHIKOA 2020/05/28

Alkateak erantzuten dio Idazkaritza horretan lanean ari dela eta aurrera pausoak eman direla. Zoritxarrez oraindik ez da egin baina datorren Osoko Bilkurarako eginda egongo dela dio.

El alcalde le contesta que Secretaría está trabajando en ello y que se han dado pasos hacia delante. Por desgracia todavía no se ha hecho, pero estará hecho para el próximo Pleno.

Iñigo Cambronerok bere taldeak elkarlanerako mahai baten inguruan egin zuen proposamenari buruz galdetu du.

Iñigo Cambronero pregunta sobre la propuesta que hizo su grupo de una mesa de colaboración.

Alkateak erantzuten dio krisi garaian ez dutela aurrera pausorik eman. Orokorrean ikusi dugu harremana mantendu dugula bozeramaileen batzordearen bitartez. Onartzen du lanpetuta dabiltzala. Saiatzen ari dira informazioa trukatzeko eta elkarlanean jardutea. Orokorrean bozeramaile batzordea eta zuzeneko harremanekin konpontzen ari dela uste du.

El alcalde le responde que en época de crisis no han dado ningún paso. En general hemos visto que se ha mantenido la relación mediante la junta de portavoces. Reconoce que están atareados. Están intentando intercambiar información y colaborar. En general, piensa que se está arreglando con la junta de portavoces y con las relaciones directas.

Iñigo Cambronerok dio hondartzakoa bezalako gaiak etorriko direla, eta aldizkako bilera bat ezartzea gustatuko litzaiokeela, orain zenbait gauza ihes egiten ari dela uste duelako.

Iñigo Cambronero dice que se avecinan temas como el de la playa y le gustaría establecer una reunión periódica porque cree que ahora se escapan cosas.

Alkateak dio beraiantzako zaila dela bilera periodikoa antolatzea egoera honetan. Beraien asmoa bakoitzean proposamenak lantzea eta harremanak egitea da. Uste du proposatzen duen bilera mota horiekin ez zela era egokian egingo.

El alcalde dice que para ellos es difícil organizar una reunión periódica en esta situación. Su intención es trabajar propuestas y establecer contactos en cada una de ellas. Considera que con este tipo de reuniones que propone no se iba a hacer de la manera adecuada.

Itziar Irizarrek galdetzen du ea bozeramaileen batzordeaz gain beste bat proposatzen duten.

Itziar Irizar pregunta si además de la junta de portavoces proponen otra.

Iñigo Cambronerok dio asmoa dela proposamenak aurkeztu eta hauek lantzea.

Iñigo Cambronero dice que el propósito es presentar propuestas y que se trabajen.



DEBAKO UDALA

2020SPLE0006

6.Bilera: OHIKOA 2020/05/28

Alkateak zehazki zer eskatzen duten galdetzen du.

El alcalde pregunta qué es exactamente lo que piden.

Iñigo Cambronerok erantzuten du koordinazio mahai bat nahi duela. Bozerramaileen mahaiaren barruan atal bat izan daiteke.

Iñigo Cambronero responde que quiere una mesa de coordinación. Puede ser un apartado dentro de la mesa de portavoces.

Alkatea ados agertzen da. Orain arte bozerramaile batzordeak funtzio hori bete duela uste du.

El alcalde se muestra de acuerdo. Piensa que hasta ahora la junta de portavoces ha cumplido esa función.

Itziar Irizarrek astelehenean Zumaia – Deba bitarteko trena martxan egongo dela aipatzen du.

Itziar Irizar comenta que el lunes se pondrá en marcha el tren entre Zumaia-Deba.

Horrenbestez, 19:46etan amaitzen da Osoko Bilkura.

Sin más temas que tratar finaliza el Pleno a las 19:46.

Jorge Gonzalez Endemaño  
Idazkaria / Secretario

Gilen García Boyra  
Alkatea / Alcalde

